**Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren, Gasteizko Udal Urak sozietatearen, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren, BIC Arabaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Bioarabaren, AquaDaten eta Vital Fundazioaren arteko Ekintza Protokolo Orokorra, GASTEIZEN ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN FARMAKUTSADURAREN ALORREKO BERRIKUNTZA-PROGRAMA bat garatzeko**

**Protocolo General de Actuación entre Diputación Foral de Álava, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, BIC Araba, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Bioaraba, AquaDat y Fundación Vital para el desarrollo de un PROGRAMA DE INNOVACIÓN EN EL CAMPO DE LA FARMACONTAMINACIÓN EN VITORIA-GASTEIZ Y EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA**

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 26an

## BILDURIK

**Ramiro Gonzalez Vicente** jauna, Arabako Foru Aldundiko Ahaldun nagusia, diputatu nagusiaren uztailaren 4eko 325/2019 Foru Dekretuaren arabera.

**Gorka Urtaran Agirre** jauna, Gasteizko Udaleko alkate-lehendakaria, Udala ordezkatzeko duen lege-gaitasunaz baliatuz —Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124. artikuluaren ildotik—.

**Ángeles Gutiérrez Ondarza** andrea, AMVISAko lehendakaria, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2021

## REUNIDOS

El Diputado General de Álava, D. **Ramiro González Vicente**, según Acuerdo del Pleno de Juntas Generales de Álava de 4 de julio de 2019.

El Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, D. **Gorka Urtaran Agirre**, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 124 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

La Presidenta de AMVISA, Dña. **Angeles Gutiérrez Ondarza**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

**Eva Ferreira** andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

**Jon Urresti** jauna, Vital Fundazioko lehendakaria, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

**Mª Ángeles García Fidalgo** andrea, Bioarabako zuzendari zientifikoa, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

**Milagros López de Ocáriz** andrea, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko eta Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluko lehendakaria, entitate horien legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

**Jorge García del Arco** jauna, AQUADATeko lehendakaria, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

**David Montero de la Torre** jauna, BIC Arabako lehendakaria, entitate horren legezko ordezkari aritzeko gaitasunaz baliatuz.

La rectora de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Dña. **Eva Ferreira**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

El Presidente de la Fundación Vital, D. **Jon Urresti**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

La Directora científica de Bioaraba, Dña. **Mª Ángeles García Fidalgo**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

La Presidenta del Colegio de Farmacéuticos de Álava y del Consejo de Farmacéuticos del País Vasco, Dña **Milagros López de Ocáriz**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de estas entidades.

El Presidente de AQUADAT, D. **Jorge García del Arco**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

El Director de BIC Araba, D. **David Montero de la Torre**, en ejercicio de su capacidad como representante legal de esta entidad.

## ADIERAZTEN DUTE

**I.** Mundu gero eta kutsatuago batean bizi gara. Konposatu kimiko jakin batzuek eragiten dituzten toxikotasun-arazoak soberan ezagunak dira. Horien artean, "kutsatzaile izendatu berriak" ditugu, gero eta kezka handiagoa sortzen dutenak: aurretik kutsatzailetzat jotzen ez ziren substantziak dira, eta ingurumenean duten presentzia guztiz berria ez izan arren, ingurumenean izan ditzaketen ondorioen gaineko kezka bada.

**II.** "Kutsatzaile izendatu berri" horien artean, kezka handiena eragiten duena "farmakutsadura" deritzona da, alegia, sendagaiek beren bizizikloaren etapa bakoitzean ingurumenean eragin dezaketen kaltea.

## EXPONEN

**I.** Que vivimos en un mundo cada vez más contaminado. Los problemas de toxicidad ocasionados por determinados compuestos químicos son de sobra conocidos. Entre ellos, los denominados "contaminantes emergentes" o de "preocupación emergente", que son aquellos previamente desconocidos como tales, cuya presencia en el medio ambiente no es necesariamente nueva pero sí la preocupación por las posibles consecuencias de la misma.

**II.** Que entre estos "contaminantes emergentes" tiene una especial relevancia lo que se conoce como la "Farmacontaminación", la afección al medio ambiente de la contaminación por fármacos en cualquiera de las etapas de las que consta el ciclo de vida del medicamento.

**III.** Europar Batasunak interesa adierazi du sendagaiek sortutako kutsaduraren eragina analizatu eta kontrolatzeko neurriak aztertu eta abian jar daitezen sustatzean, bai European Green Dealean bai trantsizio iraunkorrari heltzeko lan-agirietan. Horren froga da berriki iragarri izana alor horretan ikertzeko funtsak mugitzeko asmoa, helburuen artean aurreikusi baitu gai kimiko eta farmakoen kalteak zenbatu eta prebenitzeko irtenbide berritzaileak abian jartzea.

**IV.** Gasteiz eta Arabako lurralde historikoa iraunkortasun-ereduak dira, eta ingurumenarekin duten konpromisoagatik nabarmentzen dira; beraz, laborategi aproposak dira ingurumen-politika eta -araupetze berriak garatzeari begira inflexio-puntua izan daitezkeen ekimen berritzaileak abian jartzeko.

**V.** Berrikuntza programa hau garapen iraunkorreko helburuekin lerratzen da, eta bereziki osasun eta ongizatearekin zein industria, berrikuntza eta azpiegiturekin lotutakoekin, entitate sinatzaileek konpromiso sendoa baitute eremu horietan.

Horrenbestez, ekintzarako gogoak bultzaturik, erakunde eta entitate horiek erabaki dute ekintza protokolodio hau formalizatzea, ondoren zehazten diren klausulen arabera.

**III.** Que la Unión Europea, tanto en el European Green Deal como en varios de sus últimos documentos de trabajo para abordar una transición sostenible ha manifestado su interés por impulsar el estudio y puesta en marcha de medidas de análisis y control de la afección de la contaminación por fármacos en el medio ambiente. Una buena prueba de ello es la movilización de fondos para la investigación en este campo que acaba de anunciar y en la que prevé, como uno de sus objetivos, la puesta en marcha de soluciones innovadoras para cuantificar y prevenir las afecciones por químicos y fármacos.

**IV.** Que Vitoria-Gasteiz y el Territorio Histórico de Álava destacan como modelos de sostenibilidad y por su compromiso con el medio ambiente, siendo un laboratorio ideal para la puesta en marcha de iniciativas innovadoras que puedan servir de punto de inflexión para el desarrollo de nuevas políticas y regulaciones medioambientales.

**V.** Que este Programa de Innovación está alineado con los Objetivos de Desarrollo Sostenible, y en particular con los relacionados con la Salud y el Bienestar, la Industria, Innovación e infraestructura, ámbito en el cual las entidades firmantes están firmemente comprometidas.

Por todo ello, dentro de un espíritu de cooperación, estas instituciones y entidades, acuerdan formalizar el presente Protocolo de actuación, que estará sujeto a las siguientes

## KLAUSULAK

**Lehena.** Ekintza Protokolo Orokorraren xedea eta irismena.

Ekintza-protokolo honen xedea da alderdien arteko erakundearteko lankidetza eta kooperaziorako esparru orokorra zehaztea, farmakutsaduraren alorreko berrikuntza-programari dagokionez bakoitzak bere interesen esparruan egiten dituen jarduerei dagokienez lankidetza eta kooperaziorako ildoak finkatzearren.

**Bigarrena.** Alderdien konpromisoak.

**1.** Ekintza-protokolo Orokor honen bitartez, alderdiek hitzematen dute erakundeen artean kooperatuko dutela beharrezkotzat jotzen duten zereginetan; ondorio horietarako, eragiten dieten gaietan jarduera bateratuak egingo dituztela hitzartzen dute, elkarrekin parte hartuz eta lan eginez.

**2.** Ekintza-protokolo orokorrean sar litezkeen jarduerak berariazko hitzarmenetan islatuko dira.

**3.** Ekintza-hitzarmen honen garapenetik eratorritako konpromesu oro alderdiek horretarako egiten dituzten akordio eta agirietan ezarri beharko da eta, edonola ere, alderdi bakoitzaren barruko onespenaren mende geratuko da, eta eskatzen diren diligentziak egitearen eta horien emaitzen mende.

**4.** Ekintza-protokolo Orokor honek ez die inolako betebehar edo konpromiso loteslerik ezartzen alderdiei ezein akordio egiteko; ezein jardueraren garapenean parte hartzeko; ezein gastu edo inbertsio egiteko, bakarka edo besterekin batera, ezta elkarrekin edonolako merkataritza-sozietatea eratzeko ere.

## CLÁUSULAS

**Primera.** Objeto y alcance del Protocolo de actuación.

Es objeto del presente Protocolo de actuación establecer el marco general de la cooperación y colaboración interinstitucional entre las Partes con el propósito de fijar las líneas de cooperación y colaboración en aquellas actividades que realicen en el ámbito de sus respectivos intereses en lo concerniente Programa de Innovación en el campo de la Farmacontaminación.

**Segunda.** Compromisos de las Partes.

**1.** En virtud del presente Protocolo General de Actuación las Partes se comprometen a cooperar interinstitucionalmente en aquello que estimen necesario; y a estos efectos convienen en realizar actividades conjuntas en las materias que les afectan mediante su mutua participación y colaboración.

**2.** Las actividades que puedan incluirse en el objeto del presente Protocolo General de Actuación se podrán materializar y concretar en futuros Convenios específicos.

**3.** Cualquier compromiso que se derive del desarrollo del presente Protocolo General de Actuación habrá de establecerse en los acuerdos y documentos que las Partes celebren a tal efecto, quedando en todo caso sujeta tanto a la realización de las pertinentes aprobaciones internas de cada Parte, como a la realización y el resultado de las diligencias debidas que se requieran.

**4.** El presente Protocolo General de Actuación no constituye obligación ni compromiso vinculante alguno para las Partes de proceder a celebrar cualquier acuerdo; ni de participar en el desarrollo de cualquier actividad; ni de acometer cualquier gasto o inversión, ya sea de forma individual o conjunta; ni de constituir conjuntamente cualquier tipo de sociedad mercantil.

5. Adibide gisa, jarduera hauek izan daitezke Ekintza-protokolo Orokor honen xede:

Ikerketa proiektu bat abian jartzea hondakin-uretan eta ekosistemetan kutsatzaile izendatu berririk dagoen eta horrek zein eragin izan dezakeen zehazteko.

Ikerketa zientzialarien artean eta gizartean ezagutaraztea laguntzea, jardunaldi, mintegi edo biltzarren bitartez.

Sendagaiak zentzuz erabiltzeko irtenbideak identifikatzen eta garatzen lan egitea, eta farmakutsadurak duen inpaktuari buruzko prestakuntza ematea osasun alorreko langileei.

Irtenbide teknologikoak sustatzea farmazia-produktuak eraginkortasun handiagoz desagerrarazi ahal izateko.

**Hirugarrena.** Finantzaketa.

1. Ekintza-protokolo Orokor honek ez die finantza-betebeharrik edo kontraprestazio ekonomikorik ekarriko alderdiei; hori garatzeko berariazko hitzarmenetan jasoko da zein den jarduera zehatzen kostua, halakorik bada, eta nola finantzatuko den.

2. Ekintza-protokolo Orokor hau betez egiten diren jardueretan, alderdi bakoitzak bere partaidetza dela eta sortutako kostuei egingo die aurre, protokoloa garatzearekin lotutako edozein akordiotarako negoziazioei dagozkienak barne, bilerek eta alderdietako edozeinen bidaiek sortutako kostuak, besteak beste.

3. Ekintza-protokolo honen barruan alderdiek elkarren arteko adostasunez egoki jotzen dituzten azterlanak, lanak eta/edo esperientzia pilotuak gauzatu, kontratatu eta ordaintzeko baldintzak organo eskudunek onetsitako akordioetan formalizatuko dira, laugarren klausulan deskribatutako jarraipen batzordeak aldez aurretik proposamena landuta. Alderdien legezko ordezkariek sinatu ondoren, Ekintzarako protokolo

5. A título enunciativo, formarán parte de las actividades que constituyen el objeto del presente Protocolo General de Actuación las siguientes:

Poner en marcha un proyecto de investigación con el objetivo de determinar la presencia de contaminantes emergentes y su potencial impacto en aguas residuales y ecosistemas.

Contribuir a la divulgación y difusión científica y social de los resultados de la investigación mediante jornadas, seminarios o congresos.

Trabajar en la identificación y desarrollo de soluciones para un uso racional del medicamento y facilitar formación sobre el impacto de la farmacontaminación al personal sanitario.

Promover soluciones tecnológicas destinadas a mejorar la eficiencia en la eliminación de productos farmacéuticos.

**Tercera.** Financiación.

1. El presente Protocolo General de Actuación no comporta obligaciones financieras ni contraprestación económica para ninguna de las Partes, siendo en los correspondientes Convenios específicos que lo desarrollen donde se hará constar oportunamente, en su caso, el coste económico de las concretas actividades, así como su financiación.

2. En las actividades realizadas en cumplimiento del presente Protocolo General de actuación cada Parte afrontará los costes derivados de su participación, incluyendo los costes asociados a las negociaciones que resulten de cualquier acuerdo relacionado con el desarrollo del mismo como, entre otros, los costes de las reuniones y viajes de cualquiera de las Partes.

3. Las condiciones para la realización, contratación y abono de los estudios, trabajos y/o experiencias piloto que las Partes, de común acuerdo, estimen oportuno llevar a cabo en el marco de este Protocolo General de Actuación, y previa

orokor honi gehituko zaizkio, berariazko hitzarmen gisa.

**4.** Nolanahi ere, alderdietako batek ere ez du baimenik izango kostu edo gasturik sortzeko beste alderdi baten izenean edo hura ordeztuz, haren onespen espresu eta idatzia izan ezean.

**Laugarrena.** Jarraipen batzordea eta jakinarazpenak.

**1.** Jarraipen batzorde bat eratuko da Ekintza-protokolo orokor honen garapena koordinatzeko, bereziki bigarren klausulan deskribatzen diren jarduerei dagokienez; Ekintza protokolo orokor hau zenbat alderdik sinatzen duten, hainbat kide izango du batzordeak.

**2.** Beste pertsona batzuek ere hartu ahalko dute parte jarraipen batzordearen bileretan, aztertu nahi diren gaien izaera dela eta alderdiek egokitzat jotzen badute.

**3.** Ekintza-protokolo hau indarrean dagoen bitartean, bertan jasotako jardueren aurrerabide egokirako beharrezkoa den guztietan bilduko da jarraipen batzordea, aldeetako edozeinek hala proposatzen duelarik, eta urtean behin gutxienez.

**4.** Ekintza-protokolo orokor honetan berariaz araututa ez dauden alderdiei dagokienez, kide anitzeko organoen erregimena aplikatuko zaio jarraipen batzordeari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluan arautzen denaren arabera.

**5.** Ekintza-protokolo orokor honen ondorioetarako, jarraian adierazten diren helbideak izendatzen dituzte berariaz alderdiek jakinarazpenak egiteko helbide balioduntzat; horietan aldaketarik bada gerora, horren berri eman beharko diote elkarri:

propuesta elaborada en el seno del Comité de Seguimiento descrito en la Cláusula Cuarta, se formalizarán en los correspondientes acuerdos aprobados por los órganos competentes y que, una vez firmados por los representantes legales de ambas Partes, se incorporarán al presente Protocolo General de Actuación a modo de Convenio específico.

**4.** En todo caso, ninguna de las Partes estará autorizada a incurrir en coste o gasto alguno en nombre o representación de las otras partes sin su aprobación expresa y por escrito.

**Cuarta.** Comité de Seguimiento y práctica de las notificaciones.

**1.** Para coordinar el desarrollo del presente Protocolo General de Actuación y, específicamente, las actividades descritas en la Cláusula Segunda, se constituirá un Comité de Seguimiento compuesto por tantas personas como partes suscriben el presente Protocolo General de Actuación.

**2.** Asimismo, podrán tomar parte en las reuniones del Comité de Seguimiento aquellas otras personas cuya participación se considere conveniente por las Partes, en función de la naturaleza de los asuntos a tratar.

**3.** El Comité de Seguimiento se reunirá durante la vigencia del presente Protocolo de actuación siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones previstas en el mismo a solicitud de cualquiera de las Partes y al menos una vez al año.

**4.** Al Comité de Seguimiento le será de aplicación, en todo aquello no expresamente regulado en el presente Protocolo General de Actuación, el régimen de los órganos colegiados contemplado en el Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**5.** A los efectos del presente Protocolo General de Actuación, las Partes designan expresamente

a) ARABAKO FORU ALDUNDIA:
Probintzia plaza z/g, 01001 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa: tmolinuevo@araba.eus

b) GASTEIZKO UDALA:
Espainia plaza 1, 01001 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa: jonatanmc@vitoria-gasteiz.org

c) AMVISA:
Antilletako pasabidea 3, 01012 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa: magutierrez@vitoria-gasteiz.org

d) VITAL FUNDAZIOA: Aiztogile kalea 24 (Sokaren etxea), 01001 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa: aipoacua@fundacionvital.eus

e) EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. ARABAKO ERREKTOREORDETZA:
Izardui Komandantearen kalea 2, 01006 Vitoria-Gasteiz.
Posta elektronikoa: manoli.igartua@ehu.eus

f) BIOARABA:
Isabel Orbe kalea z/g, Herrandarren kalearekiko izkina. 01002. Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa:
estibalitz.orrunoaguado@osakidetza.eus

g) Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala.
Alaba Jeneralaren kalea 21-3. C, 01005 Vitoria-Gasteiz
Posta elektronikoa: cofalava@redfarma.org

h) AQUADAT Efficient Innovation, s.l. Beurko Berria bulebarra. Luis de Castresana kalea 6-12. 48902 Barakaldo
Posta elektronikoa: jorge@aquaradar.net

i) BIC ARABA. Arabako Teknologi Elkartegia - BIC eraikina, Albert Einstein kalea 15, 01510 Vitoria Gasteiz, Araba.
Posta elektronikoa: david@bicaraba.eus

como domicilios hábiles para la práctica de notificaciones los señalados a continuación, debiendo informarse mutuamente de cualquier modificación futura de los mismos:

a) DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA:
Plaza de la Provincia, s/n, 01001 Vitoria-Gasteiz
Correo electrónico: aarana@araba.eus

b) AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ:
Plaza España, 1, 01001 Vitoria-Gasteiz
Correo electrónico: jonatanmc@vitoria-gasteiz.org

c) AMVISA.
Pje las Antillas, 3, 01012 Vitoria-Gasteiz.
Correo electrónico:
magutierrez@vitoria-gasteiz.org

d) FUNDACIÓN VITAL. C/ Cuchillería 24 (Casa del Cordón). 01001 Vitoria-Gasteiz
Correo electrónico:
aipoacua@fundacionvital.eus

e) UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO. VICERRECTORADO DE ÁLAVA.
C/ Comandante Izarduy, 2, 01006 Vitoria-Gasteiz.
Correo electrónico: manoli.igartua@ehu.eus

f) BIOARABA.
c/ Isabel Orbe s/n esquina con c/ Los Herrán. 01002. Vitoria-Gasteiz
Correo electrónico:
estibalitz.orrunoaguado@osakidetza.eus

g) Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava.
Calle Del, General Alava Kalea, 21, 3 C, 01005. Vitoria-Gasteiz
Correo electrónico: cofalava@redfarma.org

h) AQUADAT.
Correo electrónico: jorge@aquaradar.net

i) BIC ARABA.
Correo electrónico: david@bicaraba.eus

**6.** Jarraipen batzordeak bigarren klausulan jasotakoak baino proiektu gehiago egitea proposatu ahalko du, baldin eta loturarik badute Ekintza-protokolo honen xedearekin.

**7.** Alderdiek koordinazio batzorde bat eratzea erabaki dute, proiektuaren sustatzaile eta ikertzaile nagusi Gorka Orive jaunak (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Unax Lertxundi jaunak (Bioaraba) osatua, zeinak berrikuntza proiektuaren koordinatzaile arituko baitira.

**Bosgarrena.** Ekintza-protokolo orokorraren iraupena, iraungipena, osotasuna, aldaketa eta ukoa.

**1.** Ekintza-protokolo orokor honek lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik kontatuta.

**2.** Aurreko atalean aurreikusitako epea bukatu aurreko edozein unetan adostu ahalko dute alderdiek hori beste lau urtez luzatzea, edo iraungitzat jotzea.

**3.** Xede dituen jarduerak burutzen direlarik nahiz suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat egokitzen delarik iraungiko da Ekintza-protokolo orokor hau:

a) Indarraldia bukatzen denean.

b) Alderdiek protokoloa suntsiaraztea erabakitzen badute indarraldia amaitu aurreko edozein unetan.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu.

d) Protokoloa baliogabetzat jotzen duen ebazpen judizial irmo bat ematen bada.

e) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

**6.** El Comité de Seguimiento podrá proponer la realización de más proyectos que los recogidos en la Cláusula Segunda siempre y cuando estén relacionados con el objeto del presente protocolo de actuación.

**7.** Las Partes acuerdan el nombramiento de una Comisión de Coordinación, compuesta por los investigadores principales e impulsores del proyecto D. Gorka Orive (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea) y D. Unax Lertxundi (Bioaraba) que actuarán como coordinadores del Programa de Innovación.

**Quinta.** Duración, extinción, integridad, modificación y renuncia del Protocolo General de actuación.

**1.** El presente Protocolo General de Actuación tendrá un período de vigencia de cuatro años computados desde la fecha de su firma.

**2.** En cualquier momento antes de la finalización del plazo establecido en el apartado anterior las Partes podrán acordar mediante acuerdo expreso su prórroga por un período de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

**3.** El presente Protocolo General de Actuación se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución:

a) El transcurso de su plazo de vigencia.

b) La adopción de un acuerdo de extinción por las Partes, en cualquier momento anterior a la finalización de su plazo de vigencia.

c) El incumplimiento de los compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.

d) El dictado de una resolución judicial firme que declare de su nulidad.

e) Cualquier otra causa prevista en las leyes.

**4.** Xedapen judizial bat edo bestelako xedapen bat tarteko Ekintza-protokolo orokor honen klausuletako bat baliogabe edo ez-eraginkor gertatzen bada, osorik edo partez, baliogabetasun edo ez-eraginkortasun hori ez da hemen aurreikusitako gainerako klausuletara hedatuko; horiek indarrean jarraituko dute, eta edozein jurisdikzioren aurrean egikaritu ahalko dira.

**5.** Ekintza-protokolo orokor honen ezein zuzenketa edo aldaketa balioduna izango bada, idatziz egin beharko da, eta parte hartzen duten alderdietako bakoitzaren ordezkari baimendunak sinatu, organo eskudunek aurretiaz onartuta.

**6.** Alderdiren batek Ekintza-protokolo orokorraren edo haren klausulen bitartez hartutako konpromisoren bati uko egin diola jo ahal izateko, ukoa idatziz adierazi beharko da, eta beste aldeek onartu. Bestetik, alderdietako batek konpromiso jakin bati uko egiteak ez du berez ekarriko geroko balizko konpromisoei uko egitea, izaera berekoak izanda ere.

**Seigarrena.** Datuen erreserba eta babesa.

**1.** Alderdiei gardentasunarekin, informazio publikorako sarbidearekin eta gobernu onarekin lotutako betebeharrak betetzea dagokie; hala ere, alderdietakoren batek uste badu Ekintza-protokolo hau bete edo garatzearekin lotuta eskuratu, interpretatu, sortu edo garatutako edozein informazio, agiri, termino edo datu ezkutuko informaziotzat jo beharra dagoela, idatziz jakinarazi beharko dio beste alderdiari, halakotzat jotzea arrazoitzen duen araudia zein den adieraziz, baita dena delako informazioa trukatu, argitaratu edo jakinarazteko mugak zein diren ere. Muga horiek ez dute inola ere gaindituko Ekintza-protokolo orokor honen indarraldia.

**2.** Nolanahi ere, Ekintza-protokolo orokor hau gauzatzean Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzera behartzen dute beren burua bi aldeek.

**4.** Cuando en virtud de disposición judicial o de cualquier otra naturaleza alguna de las cláusulas del presente Protocolo General de Actuación resultare inválida o ineficaz, total o parcialmente, tal ineficacia o invalidez no se extenderá al resto de las cláusulas aquí previstas, las cuales se mantendrán en vigor y podrán ser ejercitadas ante cualquier jurisdicción.

**5.** Ninguna enmienda, cambio o modificación del presente Protocolo General de Actuación será válida, excepto si se hace por escrito y está firmada por un representante debidamente autorizado de cada una de las Partes del mismo, previa aprobación por los órganos competentes.

**6.** No se considerará que alguna de las Partes haya renunciado a alguno de los compromisos adquiridos en virtud del presente Protocolo General de Actuación o cláusula del mismo, salvo que tal renuncia haya sido debidamente expresada por escrito y reconocida por la otra Parte. Al mismo tiempo, la renuncia por una de las Partes a un compromiso concreto no implicará la renuncia a eventuales compromisos futuros, aunque sean de la misma naturaleza.

**Sexta.** Reserva y protección de datos.

**1.** Sin perjuicio del cumplimiento de la obligación de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno aplicable a las Partes, si alguna de ellas considerase que, de conformidad con la normativa sectorial aplicable, alguno de los documentos, términos, datos y demás información adquirida, interpretada, generada o desarrollada, derivados del cumplimiento y desarrollo de este Protocolo General de Actuación tiene la consideración de información reservada, deberá comunicarlo por escrito a las otras Partes con indicación de la norma que motiva esa consideración y los límites para el intercambio, la publicación o la revelación de la información indicada. Dichos límites no superarán en ningún caso el plazo de vigencia del presente Protocolo General de Actuación.

**Zazpigarrena.** Jabetza intelektuala.

**1.** Aurretiko jakintza ororen jabetza intelektuala jakintza hori garatu duen alderdiarena da osoosorik.

**2.** Ekintza protokolo orokor honetan —edo geroago egiten den berariazko akordio edo hitzarmenen batean— aurreikusitako lankidetzaren ondorioz jabetza intelektualaren alorreko eskubideak sortzen badira, alderdiak izango dira horien jabekideak, kontrakoa itundu ezean.

**Zortzigarrena.** Izaera juridikoa eta auziak ebaztea.

**1.** Ekintza Protokolo Orokor honek ez da konbeniotzat jotzen, eta sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari dagokionez interpretatu behar da.

**2.** Alderdiek hitzematen dute ezen auzirik sortzen bada Ekintza-protokolo orokor honen interpretazio, gauzatze, iraungitze eta eraginei buruz, laugarren klausulan aurreikusitako jarraipen batzordearen bitartez ebatziko dela.

Nolanahi ere, Jarduketa Protokolo Orokor honi aplikatu beharreko araubide juridikoa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak osatzen du, eta, hark arautzen ez duen guztian, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak.

Eta adostasunaren erakusgarri, eta behar bezala jasota gera dadin, hitzarmen honen hamar ale izenpetzen dituzte alderdiek, euskaraz eta gaztelaniaz, biak direlarik bertsio ofizialak, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**2.** En todo caso, las Partes se obligan al cumplimiento de Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales en la ejecución del presente Protocolo General de Actuación.

**Séptima.** Propiedad intelectual.

**1.** Los derechos de propiedad intelectual de todo conocimiento preexistente pertenecen enteramente a la Parte que los desarrolló.

**2.** En su caso, las Partes serán copropietarias de los derechos de propiedad intelectual fruto de la colaboración previstas en este Protocolo General de Actuación o en algún Acuerdo o Convenio específico posterior, salvo que se pacte lo contrario.

**Octava.** Naturaleza jurídica y resolución de conflictos.

**1.** El presente Protocolo General de actuación no tiene la consideración de Convenio tal y como se establece en el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**2.** Las Partes se comprometen a resolver cualquier conflicto que pudiera surgir en la interpretación, ejecución, extinción y efectos del presente Protocolo General de Actuación a través del Comité de Seguimiento previsto en la Cláusula Cuarta.

En cualquier caso, el régimen jurídico aplicable al presente Protocolo General de Actuación está constituído por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y, en lo no regulado por ella, por la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Y en prueba de conformidad, y para debida constancia de lo convenido, las Partes suscriben este documento a un solo efecto, en diez copias, y en los idiomas euskera y castellano, siendo ambas versiones oficiales, que se firma y sella en el lugar y fecha al principio indicados.

**Ramiro González Vicente**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Gorka Urtaran Agirre**

Vitoria-Gasteizko alkatea
Alcalde de Vitoria-Gasteiz

**Eva Ferreira**

UPV/EHU

**Jon Urresti**

Fundación Vital Fundazioa

**Ángeles Gutiérrez Ondarza**

Vitoria-Gasteizko Udal Urak
Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz

**Mª Ángeles García Fidalgo**

BIOARABA Osasun Ikerketa Institutua
Instituto de Investigación Sanitaria BIOARABA

**Milagros López de Ocáriz**

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava

**Jorge Garcia del Arco**

AQUADAT

**David Montero De la Torre**

BIC Araba